



329/2022 Ebazpena, martxoaren 29koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena, zeinaren bidez agintzen baita Osakidetzaren webgunean argitara daitezela aldi baterako kontrataziorako behin-behineko zerrendak, zehazki, lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda, Familia eta Komunitate Erizain Espezialista modalitatekoak, 6. lehenetasuna, Osasun sailburuaren 2020ko maiatzaren 13ko Aginduak araututako Covid-19aren pandemiaren konfinamendua arintzeko faserako zaintza- eta kontrol-programan (kasuen eta kontaktuen kontrola Osakidetzan) integratzeko.

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren 183/2020 Ebazpenaren bidez, goragoko mailako funtzioak betetzeko zerrendetan eta aldi baterako kontrataziorako zerrendetan izena emateko epea zabaldu zen, Familia eta Komunitate Erizain Espezialista titulazioa zutenentzat.

Osakidetza Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluak 2011ko maiatzaren 9an emandako Erabakiaren bidez arautu ziren aldi baterako kontratazio-zerrendak Osakidetzan (2011ko ekainaren 6ko EHAA).

Aipatutako 183/2020 Ebazpenaren bederatzigarren atalean xedatutakoaren arabera, **onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak** onartzeko ebazpena eman zen, baztertzeko arrazoia adierazita, hala zegoakionean. Zerrenda hauek "Covid-19aren pandemiaren konfinamendua arintzeko faserako zaintza- eta kontrol-programa (kasuen eta kontaktuen kontrola Osakidetzan)" martxan jartzeko beharrezko baliabide-premien estaldurara mugatzen dira (Programa hori Osasun Sailburuaren 2020ko maiatzaren 13ko Aginduak arautu zuen), eta aipatutako programaren indarraldira mugatzen dira aldi baterako.

2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren 17.2 atalaren arabera, 2021ean zehar jasotako eskaerak 4. atalean aurkeztutako merituei buruz ezarritako irizpideen arabera barematu ondoren, 6. lehenetasuneko zerrendak ordenatzen dira. Hori dela-eta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Agintzea Osakidetzaren web-orrian argitara daitezela Familia eta Komunitate Erizain Espezialista kategoriako (6. lehenetasuna) aldi baterako kontratazioko behin-behineko zerrendak.

Zerrenda horiek 2022ko martxoaren 30ean jarriko dira indarrean.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka **erreklamazioa** jarri dakioke Osakidetzako Giza baliabideen zuzendariari 10 egun balioduneko epean, ebazpena Osakidetzako web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko martxoaren 29an


Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Sin.: Luisa Larrauri Ereñozaga
OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA



Behin-behineko zerrendaren aurkako
RECLAMACIÓN
**2018ko ALDI BATERAKO
KONTRATAZIOKO ZERRENDAK**
**LISTAS DE CONTRATACIÓN
TEMPORAL 2018**

6. Lehentasun: 2021ko urtarrilaren 1etik-abenduaren 31arte izena emandakoak

Prioridad 6: Inscritos entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2021

IZEN-ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS:	NAN / D.N.I.:
HELBIDEA / DOMICILIO:	TELEFONOA / TELÉFONO:
KATEGORIA / CATEGORIA:	

ADIERAZTEN DU
EXPONE QUE:

Behin-behineko zerrendan horrela agertzen da:

En la relación provisional aparece como:

(Gurutze batekin adierazi)

(Señalar con una cruz)

<input type="checkbox"/>	Onartua
<input type="checkbox"/>	Ez onartua
<input type="checkbox"/>	Ez da agertzen zerrendan

<input type="checkbox"/>	Admitido/a
<input type="checkbox"/>	Excluido/a
<input type="checkbox"/>	No figura en la lista

Erreklamazio arazoak:
Motivos de la reclamación:

<input type="checkbox"/>	EPE puntuazioa	<input type="checkbox"/>	Ez du egiaztatzen IT txartelarik
<input type="checkbox"/>	Lan esperientzia	<input type="checkbox"/>	Jabetzako plaza
<input type="checkbox"/>	Hizkuntza eskakizuna	<input type="checkbox"/>	Ez du naziotasuna betetzen
<input type="checkbox"/>	Aukeratutako barrutiak (interinitateak)	<input type="checkbox"/>	Ez du adinaren baldintza betetzen
<input type="checkbox"/>	Aukeratutako zentroak (ordezkapenak)	<input type="checkbox"/>	Ez du gida-baimenik egiaztatzen
<input type="checkbox"/>	Ez du egiaztatzen eskatutako titulazioa	<input type="checkbox"/>	Beste batzuk

<input type="checkbox"/>	Puntuación OPE	<input type="checkbox"/>	No acredita IT txartelak
<input type="checkbox"/>	Puntuación experiencia	<input type="checkbox"/>	Plaza en propiedad
<input type="checkbox"/>	Perfil euskera	<input type="checkbox"/>	No cumple nacionalidad exigida
<input type="checkbox"/>	Áreas elegidas (interinidades)	<input type="checkbox"/>	No cumple edad exigida
<input type="checkbox"/>	Centros elegidos (sustituciones)	<input type="checkbox"/>	No acredita permiso de conducir
<input type="checkbox"/>	No acredita titulación exigida	<input type="checkbox"/>	Otros

Erreklamazioaren arrazoa laburbilduta adierazi eta beharrezko dokumentazioa erantsi:

Describa sucintamente el motivo de la reclamación y adjunte la documentación necesaria:

_____ n 2022ko _____ aren _____ n En _____ , a _____ de _____ de 2022

Sinadura
Erregistro Zigilua
Sello de Registro
Firma